

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3180

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2018rako laguntzen deialdia argitaratzen da. Lehen Aukera programa.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2018ko ekainaren 12ko batzarrean hartutako erabakiaren bidez, gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2018rako laguntzen deialdia onetsi du. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikuluko p) letran xedatutakoaren arabera, erakunde autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Horiek horrela, hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko 2018rako laguntzen deialdia (Lehen Aukera programa), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2018ko ekainaren 12ko batzarrean hartutako erabakiaren bidez onetsia (ebazpen honen eranskinean dago jasota).

Bigarrena.– Jakinaraztea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak laguntzen deialdia onesten duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiak.

Hirugarrena.– Deialdia onesten duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 13a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.

ERANSKINA

GAZTE LANGABEAK EUSKAL ENPRESETAN KONTRATATZEKO
2018RAKO LAGUNTZEN DEIALDIA. LEHEN AUKERA PROGRAMA

Krisi ekonomikoaren egoeragatik kalte handiak pairatu dituzten kolektiboetako bat osatzen dute gazteek. Horrek eragin negatiboa izan du gazteen langabezia-tasan, kolektibo horren egitura-arazoa larriagotu du, bai eta ekonomiaren hazkunde potentziala ere, epe luzean.

Hain zuzen ere, gure gizartearen erronka nagusietako bat gazteen langabezia murriztea da, eta erronka horri heldu behar diote bai erakundeek, bai arlo pribatuak. Arazo horri konponbide egokia emateko funtsezkoa da, alde batetik, zeregin horretan diharduten erakunde eta sektore guztiek babesa ematea eta haien artean koordinatzea, eta, bestetik, ekimen pribatuei laguntzea dagozkion neurriak diseinatzen, hartzen eta abian jartzen.

Ildo horri jarraituz, lanik ez duten eta hezkuntzako zein prestakuntzako jardueretan parte hartzen ez duten gazteen kolektiboarentzako neurriak hartzeko beharra dagoela egiaztatu da, gazteak lan-munduan txertatzeko eta lan-munduan kalitatezko enplegu batekin mantentzeko helburua kontuan hartuta. Kolektibo horretan dagoen heterogeneotasuna dela eta, egoera pertsonal eta prestakuntza-maila oso desberdinak daude, eta neurriek hezkuntzaren eta prestakuntzaren hobekuntza nahiz kontratazioaren eta autoenpleguaren sustapena hartu beharko dituzte aintzat.

Gazteen Enpleguaren Ekimena, lanik ez duten gazte guztientzat eta hezkuntza- edo prestakuntza-sistemetan inolako jarduerarik egiten ez duten gazte guztientzat dena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren EB 1304/2013 Erregelamenduan, 2013ko abenduaren 17koan, araututa dago, eta kolektibo horretako langabeziaren egitura-arazoari aurre egiteko Europar Batasuneko ekimen enblematikoetako bat da. Ekimen horretan, jarduketa-ekimenak eta -gomendioak babesten dira eta, horregatik, Gazteen Bermeari buruzko Kontseiluaren Gomendioa betetzeko tresna finantzarioetako bat da.

Enpleguaren Europako Estrategiarekin konprometitutako erakundea da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua; eta, erreferentzia hori oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzaren Enpleguaren Euskal Estrategia 2020 (<http://www.euskadi.eus>) antolatu du, erronka hauei aurre egiteko, besteak beste: aukera-berdintasuna, gazteen enplegua osotasunean garatzea, eta gure gazteei lanaren arloan eta garapen pertsonalean aukerak ematea. Hala, deialdi honen xedea da erraztasunak ematea, berriki beren ikasketak amaitu dituzten gazte lan-munduan txertatzeko lehen aukera emateko, hezkuntza-bizitzatik bizitza profesionalera errazago igaro daitezen.

Horren ondorioz, titulua edo prestakuntza izanik, beren tituluekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak kontratatzeke egiten da deialdi hau. Lan-kontratu mugagabea edo praktikaldiko kontratua izango da, eta, horrela, gazteen enplegagarritasuna bultzatu nahi da, bai eta gazte horien laneratzea ere. Beraz, Lehen Aukera programa honen azken helburua da egungo egoera ekonomikoak gogor zigortutako euskal gizartearen zati horren lan-aukerak hobetzea eta bultzatzea, euskal ekonomiaren lehiakortasuna eta lan-merkatuaren kalitatea hobetzen laguntzea, eta gizarte-bazterkeriari aurre egitea. Gizarte-bazterkeriatzat hau jotzen da: «biztanleriaren zenbait segmentuk dagokien gizarteko bizitza sozialean, ekonomikoan eta kulturean ez parte hartzea, ez dutelako oinarrizko eskubiderik, baliabiderik eta gaitasunik». Hori guztia Europar Batasuneko testuinguruan giltzarrizko kontzeptua da, biztanle batzuen egoerei (pobrezia, ahultasuna eta bazterkeria) heltzeko garaian.

Eurostat-en 2017ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera, ezagutzen den azkena, 30 urte-tik beherako pertsonen langabezia-tasa % 12,60koa da Europar Batasunean. Gure lurraldeari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestari buruzko datuen arabera, 2017ko laugarren hiruhilekoan, kolektibo horren langabezia-tasa % 17,06koa izan da, eta enplegu-tasa % 43,43koa. Aldiz, EAEko enplegu-tasa orokorra % 70,74koa da.

Bestalde, deialdi honek ezin ditu alde batera utzi lan-merkatuan emakumeen eta gizonen artean dauden diferentziak eta horien arteko berdintasunik eza. Horrela, Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren 2017ko laugarren hiruhilekoko datuek erakusten duten bezala, emakumeen enplegu-tasa ia 9 puntu txikiagoa da gizonena baino (emakumeen enplegu-tasa % 66,59koa da, eta gizonena, berriz, % 75,38koa). Tasa horiek erakusten dute desgarrarazi beharreko aldea dagoela lan-esparrura sartzeko eta bertan irauteko aukeretan.

Deialdi honek Enpleguaren Euskal Estrategia 2020ko D.2 norabidea barnean hartzen du, eta ildo horretan jardunbide hauek aipatzen dira, gazteen enplegua berariazko helburu duten beste batzuen artean: laneko lehen esperientzia eskuratzea sustatuko duten tresnak sendotzea, ikastun-kontratuei eta praktikaldiko kontratuei lehentasuna ematea, bekak salbuespeneko egoeretan soilik erabiltzea, eta prestakuntza-eremutik lan-eremura igarotzeko trantsizio-prozesuak sendotzea.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, erakunde autonomo honetako Administrazio Kontseiluak 2018ko ekainaren 12an onesten du 2018an euskal enpresetan gazteak kontratatze laguntzen deialdia (Lehen Aukera programa), zehaztapen hauen arabera:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Deialdi honen xedea da titulua edo prestakuntza izanik beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak euskal enpresetan edo 4. eta 12. artikuluetan aurreikusitako bestelako erakundeetan kontratatze oinarriak ezartzea eta horretara bideratutako laguntzak arautzea, gazte horien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, lanbide-esperientzia lortu eta haien laneratzea sendotzearen bidez.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta Europako Gizarte Funtzaren baterako finantziarioa.

1.–Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 4.000.000 eurokoak dira, horietatik 2.153.846 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2018ko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak eta 1.846.154 euro 2019ko konpromiso-kreditukoak.

2.– Deialdi honetako finantzaziora bideratutako baliabide ekonomikoak honela banatuko dira:

a) 3.846.154 euro lan-kontratu mugagabeak eta praktikaldiko kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 2.000.000 euro 2018ko ordainketa-kredituari dagozkie, eta 1.846.154 euro 2019ko konpromiso-kredituari.

b) 153.846 euro 12. artikuluan ezarritako erakunde laguntzaileek lan-eskaintzak jaso, erregistratu eta kudeatzeko, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko ere, 2018ko ordainketa-kredituaren kontura.

3.– Deialdi honi esker diruz lagundutako lan-kontratuak Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatu ahal izango dira, Gazte Enplegurako 2014-2020ko Programa Operatiboaren esparruan edo EAEko 2014-2020 EGIF Programa Operatiboaren esparruan.

4.– Emango diren laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko aipatu kopurua edo hura handizetik ateratzen dena, indarreko legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira (eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen); eta, hala balitz, hori guztia argitara eman beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez.

II. KAPITULUA

GAZTE LANGABEAK KONTRATATZEKO LAGUNTZAK

3. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honen babesean diruz lagundu ahal izango dira EAEn dauden lan-zentroetako lanpostuetan jarduteko lan-kontratu mugagabeak eta gutxienez 6 hilabete irauten duten praktikaldiko kontratuak. Kontratu horiek guztiek, kontratuaren hasieran, deialdi honetako 5. artikuluan aurreikusitako baldintzak bete beharko dituzte.

Kontratu horiek EHAAn deialdi hau argitaratzen den egunetik 2018ko urriaren 31ra bitartean hasi beharko dira.

2.– Deialdi honen babesean dauden diruz lagundu daitezkeen kontratuak Langileen Estatu-tuetako aurreikuspenetara egokitu beharko dute, baita aplikatu daitezkeen arauetara ere, eta kasu guztietan baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Kontratuko lanpostuak kontratatutako pertsonaren ikasketa-mailaren edo trebakuntzaren arabera izan beharko dute.

b) Kontratuak idatziz formalizatu beharko dira, eta berariaz jaso beharko dituzte honako datu hauek: langilearen titulua, kontratua noiz hasi eta, halakorik balitz, noiz amaituko den, zenbat iraungo duen, lanaldia eta zein den bete beharreko lanpostua.

c) Urteko ordainketa garbiak kontratuan agertu beharko du, eta ezingo da izan zenbateko haue-tatik beherako kopurua, titulu akademikoaren arabera:

Titulu akademikoa	Urteko gutxieneko ordainketa garbia (aparteko pagak barne)
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana)	18.000,00 €
Unibertsitateko diplomatura, ingeniari-tza teknikoa, arkitektura teknikoa edo unibertsitateko gradua (Bologna plana)	15.200,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	13.000,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarrizko lanbide heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	11.200,00 €

d) Kontratuak lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak izan daitezke; azken kasu horretan, inoiz ez dira izango ezarritako lanaldiaren % 70etik beherakoak.

3.– Diruz lagundu daitezkeen kontratatutako jotzeko, lan-kontratu mugagabeek edo praktikaldiko kontratuek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan enpresak Euskal Autonomia Erkidegoan

duen/dituen lantokiko/lantokietako langile kopuruarekin alderatuta. Kontratazioaren egunean, kontratu berri horrekin enpresako langileen batezbestekoa igoko da.

Ondorio horietarako, adierazitako baldintza ez da betegabetzat hartuko kontratuak arrazoi hauengatik amaitu badira: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lan-denbora borondatez murriztea, langileen ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia.

4.– Honako kontratu hauek, berriz, ezin izango dira diruz lagundu:

a) Enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duen inoren ezkontideari, oinordekoei eta gainerako senideei (odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino) edo enpresetako administrazio-organoetako edo zuzendaritzako kideei egindako kontratuak, haien forma juridikoa gorabehera.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren edozein deialditan diruz lagungarriak diren jardueri lotuta gauza daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan diruz lagunduak izan direnak.

4. artikulua.– Enpresa onuradunak.

1.– Deialdi honetan zehaztutako kontratu mugagabeak eta/edo praktikaldiko kontratuak egiteagatik diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte enpresa pribatuak (haien forma juridikoa edonolakoa izanda ere), banakako enpresaburuak, ondasun-erkidegoek eta sozietate zibilek, baita elkarte eta fundazioek ere, baldin eta 17. artikuluan ezarritako baldintza orokorrak eta honako hauek betetzen badituzte:

a) Egoitza soziala edo fiskala EAEn izatea edo lantokia EAEn egotea.

b) Administrazio publiko batek edo gehiagok % 50eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa ez izatea.

c) Enpresako Langileen Legezko Ordezkaritzari (LLO) deialdi honen babesean kontratatzeko asmoaren berri ematea, kontratu mota, kontratazio-aldia eta bete beharreko postua adierazita. Enpresak eskaeran berriaz adierazi beharko du LLO baduen ala ez.

d) Europako Batzordearen aurretiazko erabakiaren bidez laguntza bat legearen aurkakoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela adierazi ostean ez egotea berreskuratze-agindu baten zain.

2.– Lan-kontratu mugagabeak edo praktikaldiko lan-kontratuak egiteko diru-laguntzei dagokienez, ez dira erakunde onuradun izango honako hauek: erakunde autonomoak eta elkarte publikoak, administrazio publiko baten edo gehiagoren mendeko elkarte edo erakundeak, eta aldi baterako lanen enpresak, langileak lagatzeko enplegetarako.

5. artikulua.– Deialdi honen babesean kontratatuko gazteek bete beharreko baldintzak.

1.– Deialdi honen xedea da 16 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago duten gazteak kontratatzea, eta, horretarako, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaile gisa izena emanda eta alta-egoeran egotea, eta kontratua egiterakoan langabea izatea.

c) Honako multzo hauetakoren batean zehaztutako tituluren bat izatea:

– Lizentzia, ingeniaritza, arkitektura edo masterra (Bologna plana)

– Unibertsitateko diplomatura, ingeniaritza teknikoa, arkitektura teknikoa edo unibertsitateko gradua (Bologna plana)

– Lanbide Heziketa arautuko eta berariazko lanbide-heziketako goi-mailako edo erdi-mailako teknikaria. Teknikari laguntzailearen (LHI) eta teknikari espezialistaren (LH II) tituluak horien balio-kideak izango dira.

– Oinarrizko lanbide-heziketa.

– Ofizialki aurrekoen baliokidetzat hartutako beste titulazio batzuk.

– Profesionaltasun-ziurtagiria.

d) Tituluarekin lotutako enpleguetan 6 hilabeteko esperientzia izatea gehienez ere.

2.– Gazte Bermea Sistemari izena ematea:

a) Enpresak zuzenean egindako hautaketa-prozesuan, 7.1.a artikuluan araututakoaren arabera, kontratatutako gazteak Gazte Bermea Sistemari izena emanda egon beharko dute, kontratua sinatu aurreko egunetik hasita, gutxienez, urriaren 15eko 18/2014 Legeak –hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituenak– ezarritakoari jarraituz.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, bere bulegoen edo zentro kolaboratzaileen bidez, deialdi honen 7.1.b artikuluan araututako hautaketa-prozesua egitean, lehentasuna emango zaie Gazte Bermea Sistemari izena emanda daudenei, urriaren 15eko 18/2014 Legeak, –hazkuntza, lehiakortasuna eta efizientzia sustatzeko urgentziazko neurriak onartzen dituenak– ezarritakoari jarraituz.

3.– Prestakuntza Duala egin duten enpresa berean gazteak zuzenean hautatuta egiten diren kontratuetan, prestakuntzaren xedea izan bada hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzea, kontratu mugagabeak izan beharko dute, edo gutxienez 12 hilabeteko praktikaldiko kontratuak.

4.– Lehen Aukera praktikaldiko kontratuaren modalitatea baliatuta aurreko edizioen batean kontratatu ziren pertsonak oraingo deialdiaren ondorioetarako kontuan har daitezke kontratu mugagabearen modalitatean soilik, jada eskuratu duten lan-esperientzia gorabehera, baldin eta kontratu mugagabea egiten duen enpresa ez bada praktikaldiko kontratua egin zuen enpresa berbera.

6. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

1.– Kontratu bakoitzeko diruz lagundutako zenbatekoa titulazio akademikoaren arabera zehaztuko da, era honetara:

Titulu akademikoa	12 hilabete baino gutxiagoko kontraturako diru-laguntza	12 hilabete edo gehiagoko kontraturako diru-laguntza	Kontratu mugagaberako diru-laguntza
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana)	4.500,00 €	7.200,00 €	9.000,00 €
Unibertsitateko diplomatura, ingeniari-tza tekniko, arkitektura tekniko edo unibertsitateko gradua (Bologna plana)	3.800,00 €	6.080,00 €	7.600,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	3.250,00 €	5.200,00 €	6.500,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarrizko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	2.800,00 €	4.480,00 €	5.600,00 €

2.– Aipatutako diruz lagundutako zenbateko guztiak % 10 handituko dira, emakumeak gutxien ordezkatuta dauden arloetan emakumeak kontratatzen badira.

Titulu akademikoa	12 hilabete baino gutxiagoko kontraturako diru-laguntza	12 hilabete edo gehiagoko kontraturako diru-laguntza	Kontratu mugagaberako diru-laguntza
Lizentzia, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra (Bologna plana)	4.950,00 €	7.920,00 €	9.900,00 €
Unibertsitateko diplomatura, ingeniari-tza teknikoa, arkitektura teknikoa edo unibertsitateko gradua (Bologna plana)	4.180,00 €	6.688,00 €	8.360,00 €
Goi-mailako heziketa-zikloak (LH II)	3.575,00 €	5.720,00 €	7.150,00 €
Erdi-mailako heziketa-zikloak (LH I), oinarriko lanbide-heziketa eta profesionaltasun-ziurtagiriak	3.080,00 €	4.928,00 €	6.160,00 €

Arlo horiek taula batean jasoko dira, eta taula hori Lanbideren webgune honetan jarriko da, deialdia argitaratzen den egun berean: <http://www.lanbide.euskadi.eus>

3.– Aipatutako diru-laguntzen zenbatekoak lanaldi osoko kontratuei dagozkie. Denbora partzialeko kontratuetan, zenbatekoak lanaldiaren arabera doituko dira.

7. artikulua.– Programan parte hartuko duten gazteak hautatzeko prozedura.

1.– Programan parte hartuko duten gazteen hautaketa eskabidea aurkeztu baino lehenago egingo da, prozedura honi jarraituz:

a) Enpresak zuzenean hautatuta, kontratuak egiteko, enpresa horrek Euskal Autonomia Erki-degoan duen lantokiren batean prestakuntza-aldia amaitu duten gazteekin, bai prestakuntza dualaren bidez (prestakuntza horren xedea hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzea denean), bai hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako tituluren bat lortu aurretik enpresan 2018an prestakuntza jasotzeko Eusko Jaurlaritzaren programaren baten babesean emandako beken bidez, bai unibertsitate-eremutik lan-eremura igarotzeko trantsizio gisa. Kontratatuko diren gazteak 2018an titulua eskuratu dutenak izan behar dute.

Enpresak, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrora joko du, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez edo haren kolaboratzaile den erakunde baten bitartez, aurreko letran jasota ez dauden kasuetan.

Hautaketarako, eskaintza kudeatzeko eskaera bat aurkeztu beharko da bete beharreko lanpostuaren profil bakoitzeko. Eskaera hori inprimaki normalizatu baten bidez aurkeztu behar da, IV. eranskinean ezarritako ereduaren arabera, eta datu hauek adierazi beharko dira, gutxienez: izen-abizenak edo enpresaren izen soziala, IFK/IFZ, enplegatzailearen kotizazioaren kontu-kodea (halakorik bada), lantokiaren udalerrria, lanpostuaren izena eta langintza, lanpostuen kopurua, lanpostuaren deskribapena eta enpresariaren, legezko ordezkariaren edo baimena duen pertsonaren sinadura.

Lanbideen Sailkapena erreferentziatzen hartuta adieraziko da lanbidea. Sailkapen hori Lanbideren webgunean jarriko da (<http://www.lanbide.euskadi.eus>), deialdi hau argitaratzen den egun berean.

Eskaintza kudeatzeko eskaera bakoitza jasotzen duen bulegoak edo erakunde kolaboratzaileak erregistratuko du eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geldituko da. Eskaintza erregistratu ondoren, enpresari jakinaraziko zaio haren erreferentzia.

Eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ezarritako prozedurak jarraituta kudeatuko dira, eta lehentasuna emango zaie Gazte Bermea Sistemako datu-basean identifikatuta dauden pertsonen, 5. artikuluko 2. zenbakian adierazitako baldintzetan.

2.– Deialdi honen ondorioetarako, eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta/edo eskaintzak kudeatzeko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde kolaboratzaileak joko dira 12. artikuluan aurreikusitakoak, eta horien zerrenda webgune honetan argitaratuko da: <http://www.lanbide.euskadi.eus>

3.– Kontratu bakoitzaren komunikazio-prozesuan, enpresak nahitaez adierazi beharko du kontratu horri dagokion eskaintzaren erreferentzia.

8. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea, tokia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Deialdi honetako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira (II. eranskina, gazteak kontratatze laguntzen eskabidea) eta honako toki hauetan eskuratu ahal izango dira: <http://www.lanbide.euskadi.eus>, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentralak, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu-bulegoak.

Horrez gain, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2.– Lan-kontratuak egiteagatik diru-laguntzaren eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskaera sinatzen duen pertsonaren NAN/AIZaren fotokopia, edo haren nortasun-datuak elektronikoki egiaztatze baimena; eta pertsona juridiko eskatzailearen ordezkari batek sinatzen badu eskaera, sinatzen duen pertsona horren legezko ordezkariaren egiaztatzea.

b) Enpresaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.

c) Enpresa eratu dela ziurtatzen duten eskritura eguneratuen fotokopia edo, hala badagokio, erakunde eratu dela justifikatzen duen beste edozein dokumentu.

d) Egindako kontratuaren kopia.

e) Senidetaririk ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (deialdi honetako 3.4.a artikuluan xedatutakoari jarraituz).

f) Bi txosten «Alta egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena» izenekoak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindakoak (RED sistemaren bidez eskuratuak), enpresak EAEn dituen lantokiei buruzkoak: bat, kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurreko sei hilabetei dagokiona, eta bestea, kontratazioaren alta egunari dagokiona.

Horrez gainera, kontratuak egiteko enpresak Euskal Autonomia Erkidegoan duen lantokiren batean prestakuntza-aldia amaitu duten gazteekin, bai prestakuntza dualaren bidez (prestakuntza horren xedea hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketako titulu bat lortzea denean), bai hezkuntza-sistemako lanbide-heziketako tituluren bat lortu aurretik enpresan 2018an prestakuntza jasotzeko

Eusko Jauriaritzaren programaren baten babesean emandako beken bidez, bai unibertsitate-eremutik lan-eremura igarotzeko trantsizio gisa, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

Aurkeztutako kontratuan adierazitako titulua eskuratu izana egiaztatzen duen agiria.

Kontratua egin den enpresan prestakuntza-aldia egin izana egiaztatzen duen agiria (enpresa, lantokia, aldia, modalitatea eta abar adierazita).

3.– Eskabideak guztiz beteta ez badaude, edo 2. puntuari adierazitako derrigorrezko agiriak aurkezten ez badira, erakunde interesdunari 10 egun balioduneko epearen barruan okerra konpon dezan edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio; eta, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola joko da, eta horrek administrazio prozedura erkidearen araudian aurreikusitako ondorioak izango ditu.

4.– Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2018ko urriaren 31n amaituko da.

5.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak Eusko Jauriaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Erakundea ez badago erregistratuta, edo Ogasun eta Finantza Sailaren hirugarrenen erregistro banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du hemen adierazitako ereduaren arabera: http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf

9. artikulua.– Lan-kontratua amaitzea.

1.– Funtz publikoak efizientziaz erabiliko direla bermatzeko, praktikaldiko kontratuen kasuan, kontratuen gutxieneko iraupena eskatutakoa edo diruz lagundutakoa izan beharko du, eta kontratu mugagabeen kasuan, berriz, 15 hilabetekoa izango da gutxienez.

2.– Kontratazioa egin ondoren, kausa jakin batzuk direla-eta kontratua amaitzen bada (probaldia ez gainditzeagatik lan-kontratua amaitzea, kontratatutakoak lana borondatez uztea, edo kontratatutako pertsonaren baliaezintasuna edo heriotza) idatziz jakinarazi beharko dio enpresak Lanbideri, kontratua amaitu eta gehienez ere zazpi eguneko epean, Lanbidek azken diru-laguntza egokitu dezan kontratatutakoak benetan lan egindako aldiaren arabera.

3.– Kontratu-harremana aurreko paragrafoan aurreikusi ez den beste kausaren batengatik amaitu bada, diru-laguntza oso-osorik itzuli beharko da, deialdi honen 23. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

4.– Enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi izanez gero, nahitaez eskatu beharko du berriro diru-laguntza, deialdi honetan ezarritako baldintzen arabera, adierazitako epeen barruan baldin badago.

10. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

Diru-laguntzak honela ordainduko zaizkie enpresa kontratatzaileei:

a) Lehen ordainketa (onartutako diru-laguntzaren % 52) 2018ko ekitaldiko aurrekontuetako ordainketa-kredituaren kontura, diru-laguntza emandako unean.

Ordainketa egin baino lehen, Lanbidek egiaztatuko du Gizarte Segurantzako Erregimen Oroko-rean alta emanda dagoela langilea eta plantilla handitu egin dela.

b) Bigarren ordainketa (% 48, edo justifikazioaren ondorioz dagokion kopurua), betiere, diruz laguntzekoak diren jarduketak justifikatuta, 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2019ko ekitaldiko konpromiso-kredituaren kontura.

11. artikulua.– Kontratuak egiteagatiko diru-laguntzaren justifikazioa eta epea.

Kontratuak justifikatzeko, enpresa onuradunak azken memoria bat aurkeztu beharko du, kontratatu dituen pertsonen zerrenda eta kontratuen iraupena jasoko dituen.

Memoria hori aurkezteko epea:

a) Praktikaldiko kontratuen kasuan, kontratua amaitu eta hilabeteko epea.

b) Lan-kontratu mugagabeen kasuan, hasi eta urtebete igaro ondoren.

Nolanahi ere, 2019ko abenduaren 20a baino lehen aurkeztu beharko da memoria.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du praktikaldiko kontratuen benetako iraunaldia, bai eta kontratu mugagabeak gutxienez 12 hilabete iraun dutela ere, horren ostean bigarren ordainketa egiteko. Halaber, 19.1 artikuluan adierazitakoa betetzen dela egiaztatuko du.

III. KAPITULUA

ERAKUNDE KOLABORATZAILEAK

12. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Lan-eskaintzak biltzeko, erregistratzeko eta kudeatzeko onuradun izan daitezke jarduketa horiek egiteko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde kolaboratzaile direnak.

Baldintza hori betetzeko, 2015eko urtarrilaren 23ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzen-dari nagusiaren Ebazpenean aurreikusitako prozedura jarraitu beharko da. Ebazpen horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde kolaboratzailea izateko prozedura ezartzen da, lan-eskaintzak erregistratu eta kudeatzeko arloan bitartekaritza-zerbitzua emateko.

2.– Halaber, erakunde kolaboratzaile izan daitezke, deialdi honi zehazki lotutako enplegu-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, EAEko honako erakunde hauek:

a) Unibertsitateak.

b) Lanbide-heziketako ikastetxe publikoak eta pribatu itunduak, bai eta ikastetxe horiek biltzen dituzten elkarteak ere.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erakunde kolaboratzaileak, 2017ko deialdiko lanerako prestakuntza eta orientazioa emateko diru-laguntzen onuradun badira.

d) Udalak, mankomunitateak, kuadrillak, tokiko garapenerako agentziak eta Behargintzako zentroak.

3.– Erakunde kolaboratzaile izan daitezke, 13.5 artikuluan definitutako kudeaketa eta trantsizio-prozesuaren jarraipena egiteko, unibertsitateak eta lanbide-heziketako ikastetxe publiko eta pribatu itunduak, bai eta haiek biltzen dituzten elkarteak ere.

4.– Lehen Aukera programari lotutako eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko erakunde kolaboratzaile izateko eta/edo Lehen Aukera programari lotutako kudeaketa eta trantsizio-prozesuaren

kudeaketa eta jarraipena egiteko, deialdi honetako I. eranskin gisa ematen den inprimakiaren bidez egin beharko da eskaera. Eranskin hori Interneteko helbide honetan eskura daiteke: <http://www.lanbide.euskadi.eus>.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Erakunde kolaboratzaile bakoitzean eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko eta/edo trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko baimena 3 pertsonak izango dute, gehienez.

6.– Erakunde kolaboratzailea eraginkorra izateko baldintza hau bete beharko da: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko langileek ematen duten prestakuntza-ekintzetara joan beharko dute eta prestakuntza horri onura atera beharko diote erakundeak eskatutako baimena eskuratuko duten pertsona guztiek, horretarako ezarritako egunetan. Horren aurretik, <http://www.lanbide.euskadi.eus> webgunean prestakuntza-ekintzen tokiak eta ordutegiak argitaratuko dira, baita ekintza horietan parte hartuko duten erakundeen zerrenda ere.

Aurreko puntuan aipatutako prestakuntza-ekintza egin beharrik ez dute izango Lehen Aukera programako aurreko urteetako laguntzen deialdietan enplegu-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko kolaboratzaile izan ziren zentroek, baldin eta egiaztatzen badute prestakuntza jasotako eta, ondorioz, aipatutako deialdi horretan enplegu-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko jarduerak egiteko baimendutako pertsona hori/horiek enpresako plantillan daudela orain ere.

7.– Prestakuntza-ekintzak amaitutakoan, Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du, adierazitako baldintzak betetzen dituzten erakundeak, deialdi honetan aurreikusitako ondorioetarako, erakunde kolaboratzaile izan daitezten.

13. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduerak.

1.– Diruz lagundu ahal izango da deialdi honen 12. artikulua araututako erakunde kolaboratzaileek enplegu-eskaintzak bildu, erregistratu eta kudeatzea, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena ere, prozesu horiek, azkenean, eta deialdi honen babesean, diruz lagun daitezkeen kontratuak formalizatuta amaitzen badira.

2.– Lan-eskaintzen bilketatzat jotzen da, zenbait enplegu eskaintzailerekin harremanetan jartzen den prozesuaren bidez, lanpostu bateko edo batzuetako estaldura-beharra identifikatzea eta identifikazio horretatik eskaintzen den profila duen horri dagokion kudeaketa-eskaera lortzea.

3.– Lan-enplegu baten erregistrotzat jotzen da, eskaintzen bilketa-prozesuan lortutako datuak kodetzen diren prozesua. Datu horiek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sisteman sartzeko dira eta, horrela, sisteman enplegu-eskaintza berri bat sortzen da.

4.– Lan-eskaintzen kudeaketatzat jotzen da prozesu hauek guztiak egitea:

a) Aldez aurretik Lanbideren informazio-sisteman erregistratutako eskaintza bat aztertzea, eta, hala badagokio, osatzea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda daudenen artetik, une bakoitzean eskatutako lanpostuak betetzeko pertsona egokiak identifikatzea, eskaintza parekatzeko modu desberdinak erabilita.

c) Eskaintako lanpostuetan sartzeko identifikatutako izangaien prestasuna egiaztatzea.

d) Izangai bakoitza enpresara bidali ostean, horren emaitza jasotzea. Emaitza jasotzeak hau esan nahi du: bete beharreko lanposturako egokitzapenari edo egokitzapen-ezari dagokionez, bidalitako izangaiari buruz enpresak zein balorazio egiten duen eta horren arrazoia zein den jakitea.

5.– Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipentzat joko dira erakunde kolaboratzailearen jarduera hauek:

Enpresak zuzenenean hautatu dituen gazteen lan-eskaera berreskuratzea, berritzea, berrikus-tea eta aldatzea.

Kontratatutako gazteak kontratua sinatu aurreko egunetik hasita, gutxienez, Gazte Bermea Sis-teman izena emanda daudela egiaztatzea.

Enpresak zuzenean hautatu dituen gazteek, kontratua sinatzeko unean, 5.1 artikuluan adierazi-tako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzea eta bermatzea.

Kontratu hori kontratatutako pertsonak egindako ikasketen edo prestakuntzaren mailari egoki-tutako praktika profesionala lortzeko bidea eman behar duen lanpostu baterako dela egiaztatzea.

Prestakuntza Duala enpresan amaitu duten pertsonen kasuan, prestakuntza hori hezkuntza-sis-temako Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko bada, kontratua mugagabea dela edo gutxienez 12 hilabeteko praktikaldiko kontratua dela egiaztatzea.

Kontratatutako pertsona Lanbideko informazio-sisteman identifikatzea Lehen Aukera programa-ren bidez sustatutako kontratu bati lotutako pertsona gisa.

14. artikulua.– Diru-laguntzaren zenbatekoa.

Erakunde kolaboratzaileek, deialdi honen babesean diruz lagundutako kontratu bakoitzeko, zenbateko hauek jasoko dituzte, eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko eta/edo trantsizio-proze-suaren kudeaketa eta jarraipena egiteko jardueren ondorio bada:

- 120 euro, eskaintza bildu eta erregistratu duen erakunde kolaboratzaileak.
- 80 euro, eskaintza kudeatu duen erakunde kolaboratzaileak.

Erakundeak % 10eko gehigarri bat jasoko du deialdi honen babesean diruz lagundutako 20 kontratuko, enplegu-eskaintzak hartu, erregistratu eta/edo kudeatuko baditu.

– 120 euro, hezkuntza-arlotik lan-arlorako trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egin duen erakunde kolaboratzaileak.

15. artikulua.– Eskaerak aurkezteko epea, tokia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Enplegu-eskaintzak biltzeagatik eta erregistratzeagatik, bai eta trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteagatik ere, diru-laguntzak jasotzeko eskabideak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira (III. eranskina) eta honako toki hauetan eskuratu ahal izango da: <http://www.lanbide.euskadi.eus> webgunean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zerbitzu zentraletan eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren enplegu-bulegoetan.

Horrez gain, administrazio-prozedura erkidearen araudian aurreikusitako moduetako edozeine-tan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

2.– Deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen kontratuak formalizatuta amaitu diren lan-eskaintzak kudeatu dituzten erakunde kolaboratzaileek, diru-laguntzaren eskaerarekin batera, erregistratu eta/edo kudeatu dituzten lan-eskaintzen zerrenda bat aurkeztu beharko dute eta, deialdi honen babesean, lan-eskaintza horietako bakoitzean kontratatutako pertsonak ere agertu beharko dute.

3.– Trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egin duten erakunde kolaboratzaileek, diru-laguntzaren eskabidearekin batera, deialdi honen babesean kontratatutako pertsonen eta enpresa kontratatzaileen zerrenda aurkeztu beharko dute.

4.– Eskabideak guztiz beteta ez badaude, edo 1. puntuan adierazitako derrigorrezko agiriak aurkezten ez badira, erakunde interesdunari 10 egun balioduneko epearen barruan okerra konpon dezan edo aurkeztu beharreko agiriak aurkez ditzan eskatuko zaio; eta, hala egiten ez badu, eskaerari uko egin diola adieraziko du, eta horrek administrazio prozedura erkidearen araudian aurreikusitako ondorioak izango ditu.

5.– Eskaerak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 2tik 16ra arte izango da.

6.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, erakunde eskatzaileak Eusko Jaur-laritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren datu-basean agertu beharko du.

Erakundea ez badago erregistratuta, edo Ogasun eta Finantza Sailaren hirugarrenen erregist-roko banku-datuak aldatu nahi baditu, inprimakia bete beharko du hemen adierazitako ereduaren arabera: http://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/alta_terceros/es_7999/adjuntos/ALTA.pdf

16. artikulua.– Diru-laguntzak ordaintzea.

Erakunde kolaboratzaileek ordainketa bakarrean jasoko dute diru-laguntza, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak laguntzak emateko ebazpena eman ondoren.

IV. KAPITULUA

DIRU-LAGUNTZEN XEDAPEN KOMUNAK

17. artikulua.– Diru-laguntzen enpresa eta erakunde onuradunak.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen enpresa eta erakunde onuradunek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla, bai diru-laguntza emateko garaian, bai ordainketak egiteko unean. Horretarako, ez du eskatzaileen baimenik beharko, hala xedatzen baitu azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.3 artikulua, bai eta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 13.2.e artikulua eta Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 18., 19. eta 22. artikuluek ere.

Hala ere, eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Diru-laguntzak itzultzeko dagozkion ordainketa guztiak eginak izan beharko ditu.

c) Erakunde eskatzailearen xedeak eta helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak gizonen eta emakumeen tratu- nahiz aukera-berdintasunaren printzipioaren arabekoak izatea.

d) Zigor- edo administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galteko zigorrik ez jaso izana, eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ez jaso izana,

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera edo emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako martxoaren 30eko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

e) Ez egotea Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

6.– Enpresa eta erakunde onuradunei diru-laguntzak onartzeko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbesteko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntzen esparruan hasita dauden baina oraindik bideratzen ari diren itzultze- edo zigor-prozedura guztiak amaituta egotea.

18. artikulua.– Ebazpena emateko organo eskuduna, emate-prozedura eta ebazpena.

1.– Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak du prozedura izapidetzeko eskumena, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak, berriz, ebaztekoa.

2.– Eskaerak aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira, eta hurrenkera horretan emango zaizkie diru-laguntzak deialdiko baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte. Kreditua zabaltzen ez bada, aurrekontu-zuzkidura amaituta, geratzen diren eskabideei ezezkoa emango zaie, eta EHAAan argitaratuko da horren berri, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

3.– Eskaerak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren esanbidezko ebazpen bidez onartu edo ukatuko dira.

Kontratuak egiteagatik jaso daitezkeen diru-laguntzak emateko ebazpenean datu hauek adieraziko dira: diru-laguntzaren zenbatekoa, ordainketa-modua eta diru-laguntzaren justifikazioa.

4.– Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko, gehienez sei hilabeteko epea izango da, eskaera aurkezten den egunetik aurrera, eta epe hori amaitutakoan esanbidezko ebazpena ematen ez bada diru-laguntzaren eskabidea onartutzat hartuko da.

5.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio organo horri, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa ere jar daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

6.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenaz honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, deialdi honen babesean diru-laguntza zein enpresak jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, zein enpresari emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, ebazpena berariaz eta banan-banan ere jakinaraziko da.

19. artikulua.– Enpresa onuradunen betebeharrak.

1.– Erakunde onuradunaren betebeharrak izango dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan oro har ezarritakoak, baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginak (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia) 50.2 artikuluan jasotakoak ere, eta, bereziki, honako hauek:

a) Kontratuak 7.1.a artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek, kontratuak egin aurretik, kontratatuko den pertsonak ikasketak egin dituen prestakuntza-zentrora

jo behar dute, ikastetxeak egiazta dezan 5.1 eta 5.2.a artikuluetan ezarritako baldintzak eta 13.5 artikuluan adierazitako kudeaketaren eta prozesuaren jarraipenaren gainerako xehetasunak betetzen direla.

b) Kontratuak 7.1.b artikuluan jasotako hautaketa-prozeduraren bidez egingo dituzten enpresek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan edo haren erakunde kolaboratzaile batean aurkeztu beharko dute enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskaera.

c) Diru-laguntza ematea eragin zuen jarduera gauzatzea.

d) Plantillaren enplegu-mailari eustea 9. artikuluan adierazitako kontratuen gutxieneko iraunaldian.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean justifikatzea laguntza jasotzeko betebeharrak eta baldintzak bete direla.

f) Honako hauen egiaztatze-jarduketei baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila, Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, eta Europako funtsen kontrol-instantziak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak Europako Gizarte Funtserako aukeratuak izateko baldintzak beteko badituzte, erakunde onuradunean gastuaren kontabilitate-erregistro bat eraman behar da, kontabilitate-identifikazio bereizi batekin edo kontabilitate-kode egoki batekin.

g) Helburu berberarekin administrazio honen bidez edo beste edozein administrazio publiko edo erakunde publiko nahiz pribatutatik diru-laguntzak edo laguntzak jasoz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

h) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea diru-laguntza emateko kontuan izan den edozein baldintzaren aldaketa, baita diruz lagundutako jardueren xedeari edo izaerari nabarmenki eragiten dion edozein gertakizun ere.

i) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntzea jarduera horiek egiaztatzeko, haien jarraipena egiteko eta kontrolatzeko.

j) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari.

k) 2014-2020rako Gazte Enplegurako Programa Operatiboaren edo 2014-2020ko EGF Programa Operatiboaren esparruan, deialdi honen babesean diruz lagundutako komunikazio-, zabaltze-, edo argitalpen-material eta ekintza guztietan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eta Europako Gizarte Funtsek elkarrekin finantzatu dituztela adieraztea.

Enpresa onuradunen zerrenda Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko (EB) 1303/2013 Erregelamenduaren 115. artikuluan adierazitako zerrenda publikoan jasoko da.

l) Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunari buruzko betebeharrak:

– Probetan edo elkarrizketetan eta lanpostuetarako hautatzean tratu- eta aukera-berdintasunaren eta emakumeen eta gizonen arteko diskriminazio ezaren printzipioa aplikatzen dela bermatzea.

– Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan, hizkuntza ez sexista erabili beharko dute, saihestu beharko dute emakumeen irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista oro, eta irudi jakin bat sustatu beharko dute, balio hauek izango dituen: berdintasuna, emakume eta gizonen presentzia orekatua, aniztasuna, ardura partekatua, eta rol eta genero-identitate pluralak.

m) Kontratututako pertsonen adostasuna lortzea, haien datuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskura jartzeko, eskatutako diru-laguntza kudeatzeko soil-soilik, eta deialdi honen 24. artikuluan xedatutako edukiaren berri ematea kontratatuei.

2.– Era berean, praktikaldiko kontratu bat amaitzean bete beharko den betebeharrak espezifikoki gisa, enpresak ziurtagiri bat egin behar dio langileari. Hor, honako hauek jaso behar dira, gutxienez:

- Kontratuaren iraupena.
- Betetako lanpostuak, eta bakoitzean egindako zeregin nagusiak.

20. artikulua.– Jarraipena eta kontrola.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Ogasun eta Finantza Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europako funtsen kontrol-instantziak beharrezkoak diren ikuskaritza- eta kontrol-jarduerak egingo dituzte, deialdi honen helburuak betetzen direla bermatzeko, eta bereziki egiaztatuko dute betetzen direla enplegua benetan sortzea eta kontratuen iraupena ezartzen duten baldintzak.

Horretarako, diruz lagundutako kontratazioei buruzko dokumentazio guztia gorde eta zaindu beharko du enpresak, gutxienez 2024ra arte, deialdi honen ondoriozko konpromiso eta betebeharrak guztiak betetzen dituela egiaztatzea ahal izateko.

21. artikulua.– Diru-laguntza aldatzea.

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxienerako eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

22. artikulua.– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak bateraezinak dira kontzeptu eta helburu berberetarako administrazio honek, beste administrazio batzuek edo beste erakunde pribatu edo publiko batzuek emandako diru-laguntza, laguntza eta diru-sarrerekin, ez ordea lan-kontratu mugagabeetarako edo praktikaldiko kontratuetarako lege ezarritako Gizarte Segurantzari egindako kotizazioetako hobariekin edo murrizketekin.

23. artikulua.– Ez-betetzeak eta emandako diru-laguntzak itzultzea.

1.– Deialdi honetako erakunde onuradunek jasotako zenbatekoak eta legezko interesak –laguntzak ordaintzen direnetik aurrerakoak– itzuli beharko dituzte, baldin eta honako xedapen hauetan oro har aurreikusitako betebeharrak betetzen ez badituzte: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 50.2 artikulua. Zenbatekoak eta interesak itzuli beharko dituzte, orobat, deialdi honetan ezarritako betebeharrak espezifikoki betetzen ez badituzte edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategineko 53.1 artikuluan diru-laguntzak itzultzeko ezarritako kasuetako batean sartzen badira. Itzuli

beharrekoak itzultzeko, xedapen horretan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraituko diote (698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezarri ziren). Aipatutako kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira lege-ondorio guztietarako.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren erakunde onuradunari, ez-betetzea eragin duen/duten gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, egokitzat jotako alegazioak edo egiaztagiria aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteke dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

3.– Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea gehienez 12 hilekoa izango da.

4.– Ebazpenak arauen bat bete gabe utzi dela iritziz gero, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat ematen badu, interesdunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko gehieneko epea izango du, ebazpena jakinarazten denetik hasita. Epe hori borondatezko epetzat joko da.

5.– Borondatezko epe horretan diru-laguntza itzultzen ez bada, diru-laguntza berreskuratzeko premiamendu-bidera jotzeko izapideak hasiko dira.

24. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Pertsona fisikoen datuak babestearen arloan indarrean dagoen araudia betetz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak deialdi honen bidez araututako laguntzen eskabideen bitartez eskuratuko dituen datu pertsonalak sartuko ditu gazte langabeak euskal enpresetan kontratatze laguntzak tratatzeko daukan jarduera batean, eta Lanbide da tratamendu-jarduera horren titularra.

Interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, kentzeko eta garraiatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta datuak tratatuak izateko muga ezartzeko eta haien aurka egiteko eskubidea ere. Horretarako, idazki bat igorri beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio eta xehetasun gehiago hemen: <http://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/informazioa/erabiltzeko-baldintzak-eta-segurtasun-politika/>

25. artikulua.– Lehiari buruzko Europako araudia.

1.– Deialdi honetan gazteak kontratatzeagatik jarritako laguntzek bat etorri beharko dute Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruz Batzordeak 2013ko abenduaren 18an egindako 1407/2013 (EE) Erregelamenduan (DOUE L352, 2013ko abenduaren 24koa) ezarritako «minimis» arauarekin. Kalifikazio horren ondorioz, enpresa bakar bati «minimis» erako laguntzetan emandako zenbatekoak ezin izango du gainditu 200.000 euroko kopurua hiru ekitaldi fiskalen barruan.

Muga hori aplikatzeko, kontuan hartu beharko da nola definitzen den «enpresa bakarra» Erregelamendu horren 2.2 artikuluan.

2.– Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan jasotako minimis laguntza horiei buruzko aitorpena egin beharko du laguntza-eskatzen duenak, honako hau frogatzeko: minimis laguntza berriarekin ez dela gainditzen aipatutako erregelamenduan ezarritako muga maximoa.

26. artikulua.– Diru-laguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

Diru-laguntzen deialdi honi honako arau hauetan bildutako diru-laguntzei buruzko araubide juridikoa aplikatu behar zaio: Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa). Gainera, honako hauetan xedatutakoa aplikatu beharko da: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartzen duena– eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen betekizunak, araubidea eta betebeharrak.

2018ko ekainaren 20a, asteazkena



I. ERANSKINA

ENPLEGU-ESKAINTZAK BILTZEKO ETA ERREGISTRATZEKO ETA/EDO TRANTSIZIO-PROZESUAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA EGITEKO ERAKUNDE KOLABORATZAILE IZATEKO ONARPENAREN

ESKABIDEA (LEHEN AUKERA PROGRAMA, 2018)

DIRU-LAGUNTZA ESKAERA LANBIDEREKIN BATERA ORIENTAZIOKO EKINTZAK ETA ZERBITZUAK GAUZATZEKO

ENPLEGU-ESKAINTZAK BILTzea ETA ERREGISTRATzea TRANTSIZIO-PROZESUAREN KUDEAKETA ETA JARRAIPENA
(LHko ikastetxeentzat soilik)

1. ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IZENA EDO IZEN SOZIALA (pertsonea fisikoa, erakundea edo enpresa)	IFZ/IFK

2. KOKALEKUA

ERAKUNDEAREN KODEA ETA KOKALEKUA (*)	HELBIDEA			TELEFONOA
HERRIA	LURRALDE HISTORIKOA	POSTA-KODEA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	

(*) Zerbitzu Zentralek betetzeko

3. LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK	NAN/AIZ

4. BAIMENA NORENTZAT ESKATZEN DEN (PERTSONEN DATUAK)

NAN/AIZ	IZEN-ABIZENAK	ESKAINITZA	A. TRANTSIZIO	BAIMENDUAK LEHEN AUKERA 2014-2015-2016-2017		SINADURA
				BAI	EZ	

Formulario honetan jasotako datuen titular den enpresaren izenean, eta haren ordezkari naizen aldetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatzen diot erakunde kolaboratzaile izateko onarpena, trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko eta/edo enplegu-eskaintzak biltzeko eta erregistratzeko, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako sistema, protokolo eta jarraibideak baliatuta. Eskabide hau gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeke 2018ko ekitaldiko deialdian xedatutakoaren esparruan dago. LEHEN AUKERA programa

_____ (e)n, 2018ko _____ (a)ren ____ (e)an

Legezko ordezkariaren edo pertsona baimenduaren sinadura originala eta erakundearen zigilua:	LANBIDEKO SARRERA-ZIGILUA

NORENTZAT: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua. Zerbitzu Zentralak – Enplegua Sustatzeko Arloa
Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz





ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2018ko urriaren 31n amaituko.

AURKEZTEKO LEKUA

- **LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ZERBITZU ZENTRALAK** (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 VITORIA-GASTEIZ) edo honako toki hauetan:

- **ARABAKO LURRALDE-BULEGOA**

Antilletako pasabidea 14, behea
VITORIA-GASTEIZ

- **BIZKAIKO LURRALDE-BULEGOA**

Ercilla kalea 4
BILBAO

- **GIPUZKOAKO LURRALDE-BULEGOA**

San Martzial kalea 12
DONOSTIA

- **TOKIKO ENPLEGU BULEGOAK**

- **ZUZENEAN BULEGOAK – HERRITARRENTZAKO ARRETA**

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa) eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako legedia betez, jakinarazten dugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua dela deialdi honen bidez arautzen diren laguntza-eskabideak betez eskuratzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta helburu hauetarako erabiliko dituela datu horiek: deialdiko diru-laguntzak kudeatzea eta kontrolatzea, Lanbideko zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak gizarteratzeari eta laneratzeari begira beste administrazio eskudunekin elkarlanean eta lankidetzan jardutea, iruzurra pertsegitzea eta estatistiketan erabiltzea.

Datuen tratamendua babestuta dago tratamenduaren arduradunak dituen lege-eginbeharretan (DBEO, 6.1.c art.) eta botere publikoen izenean burutzen diren eginkizunetan (DBEO, 6.1.e art.).

Datuak jasotzen dituen unean, egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa jakinarazi behar die entitate eskatzaileak datuen titularrei.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, interesdunek beren datuei buruzko irispide-eskubidea, zuzentzekoa, ezereztzekoa eta transferitzekoa erabil ditzakete, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Jose Atxotegi kalea 1, 01009, Vitoria-Gasteiz.

Lanbideren web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <http://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/informazioa/erabiltzeko-baldintzak-eta-segurtasun-politika/>



2018ko ekainaren 20a, asteazkena



1.- ENPRESA EDO ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
Enpresaren izena edo sozietatearen izena:	
IFZ/IFK:	EJSN:
Jarduera nagusia:	Sektorea:
Web-orria:	
Helbidea:	
PK:	Herria:
Ba al du Langileen Legezko Ordezkaritzarik (LLO): BAI <input type="checkbox"/> EZ <input type="checkbox"/>	

HELBIDEA, JAKINARAZPENAK BIDALTZEKO	
Helbidea:	
PK:	Herria:

ENPRESAREN LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK	
Izena:	Abizenak:
NAN/AIZ:	Kargua:
Telefonoa(k)	
Helbide elektronikoa:	

ENPRESAKO HARREMANETARAKO PERTSONA	
Izena:	Abizenak:
Kargua:	
Telefonoa(k):	
Helbide	

KUDEAKETAN LAGUNTZEKO ERAKUNDE KOLABORATZAILEA (*)	
Erakunde kolaboratzailearen izena:	
Jarduera nagusia:	
IFZ/IFK:	
Helbidea:	
PK:	Herria:
Harremanetarako pertsona:	
Telefonoa	Helbide

(*) Bete behar da enpresa kontratatzaileak kudeaketa-prozesua utzi badu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako erakunde kolaboratzaile baten eskuetan.





2.- KONTRATAZIOA					
2.1.- HAUTAKETAREN DATUAK					
1. MOTA.- ENPRESAK ZUZENEAN HAUTATZEA (7.1.a artikulua)	KONTRATATUAK PRESTAKUNTZA-ALDI HAUTAKO BAT AMAITU DU:				
	KONTRATUA		BEKA		
2. MOTA.- ESKAINTZA BIDEZ HAUTATZEA (7.1.b)	ESKAINTZAREN ZK.:				
2.2.- KONTRATATUTAKO PERTSONAREN DATUAK					
NAN	Izena	1. abizena		2. abizena	
Jaioteguna		Adina	Sexua		
/ /			Emakumea		Gizona
2.3.- LANPOSTUAREN DATUAK					
Lanpostuaren izena:					
Langintzaren izena eta kodea (1): http://www.lanbide.euskadi.eus					KODEA
Titulazioa:					
Kontratu-mota: PRAKTIKALDIA edo MUGAGABEA					
Lanaldia: OSOA edo PARTZIALA (gutxienez, % 70)					
Kontratuaren iraupena: HILABETETAN, kontratu					
Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea (2):					
Lan egingo duen lantokiaren helbidea:					
Gizarte Segurantzako kotizazio-kontua:					
Kontratuaren kostua: urteko soldata gordina, pagak barnean hartuta, Gizarte Segurantza kostuak zenbatu					
<p>(1) Gutxienez 4 digitu idatzi.</p> <p>(2) Gizarte Segurantzako kotizazio-taldea bat etorriko da kontratatu nahi den pertsonari eskatutako titulazio-mailarekin eta langintzarekin.</p>					





3.– ENPRESAKO LEGEZKO ORDEZKARIAREN ERANTZUKIZUPEKO ADIERAZPENA

..... Jaunak/andreak, enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, aipaturiko diru-laguntza **ESKATZEN DU**, eta espresuki onartzen ditu diru-laguntza hori jasotzeko bete beharreko baldintzak, euskal enpresetan gazte langabeak kontratatzeko laguntzen deialdiaren arabera (Lehen Aukera), eta horretarako:

ADIERAZTEN DU:

Lehenengoa:

- Enpresa eskatzaileak EAEn duela egoitza soziala eta fiskala edo lantokia.
- Enpresa eskatzaileak ez duela administrazio publiko baten edo gehiagoren % 50eko edo gehiagoko partaidetza zuzenik edo zeharkakorik.
- Enpresa eskatzailean ez dela, urtebete lehenagotik, enplegurik suntsitu deialdi honen xede diren lanpostuetan, eta diruz lagundutako kontratazioek irauten duten bitartean ez suntsitzeko konpromisoa hartzen duela.
- Ez dagoela berreskuratze-agindu baten zain, Europar Batasuneko Kontseiluak diru-laguntza bat ilegal eta merkatu erkidearekin bateraezin gisa deklaratu duen aurretiazko erabaki baten ondoren.

Bigarrena:

- Erakunde eskatzaileak dagozkion ordainketa guztiak egin dituela diru-laguntzak itzultzeko.
- Enpresa eskatzailearen xedeak eta helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak gizonen eta emakumeen tratu- nahiz aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera direla.
- Enpresa eskatzailea ez dagoela zigortuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, ezta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuen eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.
- Ez dagoela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.
- Enpresa eskatzaileak ez duela hasita itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzaren baten ondorioz.



**Hirugarrena:**

- Enpresa eskatzailea ez dela jasotzen ari helburu berbererako inolako laguntzarik beste administrazio publikoetatik.
- Enpresa eskatzaileari euroko diru-laguntza eman diola
.....(e)k (*).
- Laguntza bat eskatu diola(r)i (*), eta ebazteko dagoela oraindik.
- (*) Administrazioaren edo erakunde publiko edo pribatuaren izena adierazi.

Laugarrena:

Baimena ematen diola Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari enpresaren legezko ordezkariaren identifikazio-datuak elektronikoki egiaztatzeko.

BAI EZ

(Ez bada baimenik ematen, legezko ordezkariaren NAN/AIZen kopia aurkeztu beharko da).

Bosgarrena:

- Enpresa eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak bete dituela egiaztatzeko baimena ukatzen dio organo kudeatzaileari.

Seigarrena:

Minimis araua betetzen den egiaztatzeko, eta berariaz erregelamendu horren 2.2. artikuluan "enpresa bakarra" izateari buruz ematen den definizioa kontuan hartuta:

- Ez du, azken hiru urteotan, minimis erregimenpeko laguntzarik jaso.
- Dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bietan, minimis erregimenpeko laguntza hauek eskatu ditu eta/edo jaso ditu, minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamendu Tratatuen 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruz Batzordeak 2013ko abenduaren 18an egindako 1407/2013 (EE) Erregelamenduen arabera.

Eskatutako diru-laguntzen kopurua:

Laguntzaren egoera (*)	Laguntza eman duen erakundea	Laguntzaren xedearren deskribapena	Zenbatekoa (euroak)	Data (laguntza eskatu edo eman zenekoa)

(*) S= Laguntza eskatu da C= Laguntza eman da





Osorik bete beharko da eskabide honetan eskatutakoa, eta eranskinetan adierazitako dokumentazioarekin batera aurkeztu. Ohartarazten dizugu eskaera ezetsi egingo zaizula, baldin eta, dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egin ondoren, ez baduzu hala egiten hamar eguneko epean. Ebazpen bidez ezetsiko da.

..... jaunak/andreak, enpresa eskatzailearen legezko ordezkaria den aldetik, ziurtatzen du eskabide honetan eta erantsitako agirietan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla.

....., 2018ko(a)rena

(Legezko ordezkariaren eskuz idatzitako sinadura originala eta enpresaren zigilua)

Sinadura eskaneatuak edo kopiak ez du balio





4.– ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Eskabidea atal guztiak behar bezala beteta aurkeztu behar da, honako agiri hauekin batera:

- Enpresaren identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia.
- Hirugarrenen alta dokumentu interesduna (eredua eskura dago: www.lanbide.euskadi.eus).
- Enpresa edo erakunde kontratatzaileak Langileen Legezko Ordezkaritza(LLO) izanez gero: kontratatzeako asmoa LLOri adierazteko jakinarazpenaren kopia.
- Identifikazio-datuak elektronikoki egiaztatzeko baimenik ematen ez bada, legezko ordezkararen NAN/AIZa.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak bete direla automatikoki egiaztatzeko baimena berariaz ukatuz gero organo kudeatzaileari, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duten agiri eguneratuak aurkeztu behar dira.
- Enpresa eskatzailea eratu dela ziurtatzen duten eskritura eguneratuen fotokopia edo, hala badagokio, erakunde eratu dela justifikatzen duen beste edozein dokumentu.
- Ordezotasuna egiaztatzen duten notario-ahalordeen fotokopia.
- Sinatutako kontratuaren kopia.
- Senidetasunik ez izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, deialdiaren 3.4.a artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren bi txosten, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak eginak (RED sistemaren bidez eskuratuak), enpresak EAEn dituen lan-zentroei buruz. Txosten horietako bat kontratatutako pertsonari enpresan alta eman aurreko sei hilabetei buruzkoa da, eta, bestea, kontratazioaren alta egunekoa.

7.1.a artikuluan adierazitako prestakuntza duala edo prestakuntza-bekak amaitu dituzten gazteak kontratatzeako, agiri hauek ere aurkeztu behar dira:

- Kontratuan adierazitako titulua eskuratu izana egiaztatzen duen agiria.
- Kontratua egin den enpresan prestakuntza-aldia egin izana egiaztatzen duen agiria (enpresa, lantokia, aldia, modalitatea eta abar adierazita).





ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko azaroaren 2an hasiko da eta 2018ko azaroaren 16an amaitu.

AURKEZTEKO LEKUA

- **LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ZERBITZU ZENTRALAK** (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 VITORIA-GASTEIZ) edo honako toki hauetan:

- **ARABAKO LURRALDE-BULEGOA**
Antilletako pasabidea 14, behea
VITORIA-GASTEIZ

- **BIZKAIKO LURRALDE-BULEGOA**
Ercilla kalea 4
BILBO

- **GIPUZKOAKO LURRALDE-BULEGOA**
San Martzial kalea, 12
DONOSTIA

- **TOKIKO ENPLEGU BULEGOAK**

- **ZUZENEAN BULEGOAK – HERRITARRENTZAKO ARRETA**

Horretaz gain, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan xedatutako moduetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

DATUEN BABESA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa) eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako legedia betez, jakinarazten dugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua dela deialdi honen bidez arautzen diren laguntza-eskabideak betez eskuratzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta helburu hauetarako erabiliko dituela datu horiek: deialdiko diru-laguntzak kudeatzea eta kontrolatzea, Lanbideko zerbitzuak eskatzen dituzten pertsonak gizarteratzeari eta laneratzeari begira beste administrazio eskudunekin elkarlanean eta lankidetzan jardutea, iruzurra pertsegitzea eta estatistiketan erabiltzea.

Datuen tratamendua babestuta dago tratamenduaren arduradunak dituen lege-eginbeharretan (DBEO, 6.1.c art.) eta botere publikoen izenean burutzen diren eginkizunetan (DBEO, 6.1.e art.).

Datuak jasotzen dituen unean, egingo diren datu-tratamenduei buruzko informazioa jakinarazi behar die entitate eskatzaileak datuen titularrei.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, interesdunek beren datuei buruzko irispide-eskubidea, zuzentzekoa, ezereztzekoa eta transferitzekoa erabil ditzakete, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Jose Atxotegi kalea 1, 01009, Vitoria-Gasteiz.

Lanbideren web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <http://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/informazioa/erabiltzeko-baldintzak-eta-segurtasun-politika/>

2018ko ekainaren 20a, asteazkena

1.– ERAKUNDE ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

IZENA EDO IZEN SOZIALA (pertsona fisikoa, erakundea edo enpresa)			IFZ/IFK	
ERAKUNDE KODEA	HELBIDEA			TELEFONOA
HERRIA	LURRALDE HISTORIKOA	POSTA-KODEA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	

2.– LEGEZKO ORDEZKARIAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK	NAN/AIZ

3.– ESKATUTAKO ZENBATEKOA, HONI ERANTSITAKO ZERRENDAREN ARABERA

	ESKAINTZEN KOPURUA	EGINDAKO KONTRATUEN KOPURUA	DIRU-LAGUNTZA KONTRATU BAKOITZEKO	% 10 GEHIAGO 20 KONTRATUKO MULTZO BAKOITZEKO	GUZTIRA (EUROAK)
BILDUTAKO ETA ERREGISTRATUTAKO ESKAINTZAK			120,00 €		
KUDEATUTAKO ESKAINTZAK			80,00 €		
TRANSIZIO-PROZESUA KUDEATZEA ETA JARRAIPENA EGITEA			120,00 €		
DIRU-LAGUNTZA, GUZTIRA					

4.– ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Erregistratutako, kudeatutako eta/edo bildutako enplegu-eskaintzen zerrenda, eta haietako bakoitzean kontratatutako pertsonen zerrenda.
- Pertsona kontratatuen eta enpresa kontratatzaileen zerrenda, trantsizio-prozesuaren kudeaketa eta jarraipena egin ondoren.

Formulario honetan jasota dauden datuen titular den enpresaren izenean, eta haren ordezkari naizen aldetik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari eskatzen diot gazte langabeak euskal enpresetan kontratatzeko laguntzen 2018ko ekitaldiko deialdiari lotutako enplegu-eskaintzak biltzeagatik, erregistratzeagatik eta/edo kudeatzeagatik dagokion diru-laguntza emateko eta ordaintzeko. LEHEN AUKERA programa.

2018ko ekainaren 20a, asteazkena

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak,
erakunde kolaboratzailearen izenean eta haren ordezkaria den aldetik,

ADIERAZTEN DU:

Lehenengo:

- Erakunde eskatzaileak dagozkion ordainketa guztiak egin dituela diru-laguntzak itzultzeko.
- Erakunde eskatzailearen xedeak eta helburuak, onarpen- edo sarbide-sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduketa, antolamendua edo estatutuak gizonen eta emakumeen tratu- nahiz aukera-berdintasunaren printzipioaren arabera direla.
- Erakunde eskatzailea ez dagoela zigortuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, ezta hartarako ezgaitzen dituen legezko debekuaren eraginpean ere, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenen arteko seigarrenean xedatutakoari jarraiki.
- Ez dagoela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13 artikuluan aurreikusitako gainerako egoeren eraginpean, diru-laguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.
- Erakunde eskatzaileak ez duela hasita itzulketa- edo zehapen-prozedurarik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko diru-laguntza edo laguntzaren baten ondorioz.

Bigarrena:

- Erakunde eskatzailea ez dela jasotzen ari helburu berbererako inolako laguntzarik beste administrazio publikoetatik.
- Erakunde eskatzaileari euroko diru-laguntza eman diola
.....(e)k (*).
- Laguntza bat eskatu diola(r)i (*), eta ebazteko dagoela oraindik.
- (*) Administrazioaren edo erakunde publiko edo pribatuaren izena adierazi.

Hirugarrena:

Baimena ematen diola Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari erakundearen legezko ordezkariaren identifikazio-datuak elektronikoki egiaztatzeko.

BAI EZ

(Ez bada baimenik ematen, legezko ordezkariaren NAN/AIZen kopia aurkeztu beharko da).

2018ko ekainaren 20a, asteazkena

Laugarrena:

- Erakunde eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko ordainketak bete dituela egiaztatzeko baimena ukatzen dio organo kudeatzaileari.

..... jaunak/andreak, enpresa eskatzailearen legezko ordezkaria den aldetik, ziurtatzen du eskabide honetan eta erantsitako agirietan adierazitako datu guztiak egiazkoak direla.

....., 2018ko(a)rena

(Legezko ordezkariaren eskuz idatzitako sinadura originala eta enpresaren zigilua)

Sinadura eskaneatuak edo kopiak ez du balio

2018ko ekainaren 20a, asteazkena

IV. ERANSKINA

«LEHEN AUKERA» ESKAINTZA KUDEATZEKO ESKAERA-ORRI NORMALIZATUA
 ESKAINTZA-ZENBAKIA: _____ ESPEDIENTE-ZENBAKIA: R/18 LAK _____

BULEGOAREN / ERAKUNDEAREN DATUAK:	
Izena:	
Helbidea:	
Telefonoa:	Faxa:
Posta elektronikoa:	
Harremanetarako pertsona:	

Eskaera honen helburu bakarra da zure eskaera formalizatzea, eta, horretarako, hain zuzen, eskatzen dizugu galdera-sorta hau egiaztatzeke, eta, hala balegokio, betetzeko, eta amaitutakoan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoan edo goian azaldutako entitatean entregatzeko. Eskaerak sinatuta egon beharko du. Zentroko teknikariek jasoko dituzte eskatutako profil profesionalaren datu zehatzak, ugari baitira, eta sistema informatikoan sartuko, bertan kudeatzeko.

ENPRESAREN DATUAK ⁽¹⁾ :	
IFK / IFZ:	Kotizazio-kontuaren kodea:
Izena edo sozietatearen izena:	
Helbidea:	PK:
Herria:	Probintzia:
Telefonoa:	Faxa:
Posta elektronikoa:	
Harremanetarako pertsona:	Langileen kopurua:

LANPOSTUEN DESKRIBAPENA:	
Lanpostuaren herria ⁽¹⁾ :	
Lanpostuaren izena ⁽¹⁾ :	
Lanpostuaren deskribapena ⁽¹⁾ :	
Ezinbesteko eskakizunak:	
Baliotsiko diren eskakizunak:	
Kontratu-mota:	
Kontratuaren iraupena:	
Lanaldi-mota eta ordutegia:	
Hileko soldata gordina eurotan:	
Hasteko aurreikusitako eguna:	
Eskaintzen diren lanpostuen kopurua ⁽¹⁾ :	
Jaso nahi duzun curriculumen kopurua ⁽¹⁾ :	
Hautagaien curriculumak nola nahi dituzu jaso?	
Posta elektronikoa	Faxa
Legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren sinadura:	

⁽¹⁾ Nahitaez bete beharrekoa

2018ko ekainaren 20a, asteazkena

ESKAINTZARAKO HARREMANETARAKO BIDEA: (enpresaren harremanetarako bidearekiko bestelakoa bada)	
Telefonoa:	
Posta elektronikoa:	Faxa:
Harremanetarako pertsonaren izen-abizenak:	
Telefonoz harremanetan jartzeko ordutegia:	
Hasiera-ordua:	Amaiera-ordua:
Hautagaien curriculumak zein hizkuntzatan jaso nahi dituzu?	
<input type="checkbox"/> Gaztelania	<input type="checkbox"/> Euskara

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa) eta datuak babesteari buruz indarrean dagoen gainerako legedia betez, jakinarazten dugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua dela deialdi honen bidez arautzen diren idazki hau betez eskuratzen diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta helburu honetarako erabiliko dituela datu horiek: lanpostuak eskeintzen dituzten enpresen beharrak betetzea.

Datuen tratamendua babestuta dago tratamenduaren arduradunak dituen lege-eginbeharretan (DBEO, 6.1.c art.) eta botere publikoen izenean burutzen diren eginkizunetan (DBEO, 6.1.e art.).

Indarrean dagoen araudiaren arabera, interesdunek beren datuei buruzko irispide-eskubidea, zuzentzekoa, ezereztekoa eta transferitzekoa erabil ditzakete, bai eta datuen tratamendua mugatzekoa edo hari aurka egiteko eskubidea ere; horretarako, idazki bat bidali behar dute helbide honetara: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Jose Atxotegi kalea 1, 01009, Vitoria-Gasteiz.

Lanbideren web-orrian kontsulta daiteke datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatz guztia: <http://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/informazioa/erabiltzeko-baldintzak-eta-segurtasun-politika/>

_____ jaunak/andreak (NAN-zk.: _____),
inprimaki honetan agertzen diren datuak dituen enpresaren izenean eta ordezkartzan, Lanbide-Euskal Enpleguaren Zerbitzuari eskatzen diot, «Lanpostuaren deskribapenari» buruzko epigrafean eskatzen den profileraren egokitzen diren pertsonen curriculumak ematea. Enpresaren izenean, hitz ematen dut hautaketa-prozesuaren berri emango dudala, eskaintzak kudeatzen duen zentroak/bulegoak horretarako bidalitako dokumentua baliatuta.

Lekua eta data: _____

Legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren sinadura: